

## **Koilara liturgikoa edo *cochlear*-a**

Zilarra

VI. mendea

Dulantziko San Martin

### **Zer da *cochlear* bat? Zertarako balio zuen?**

*Cochlear*-a koilara bat da, normalean zilarrezkoa, erromatarrek erabiltzen zutena elikagai jakin batzuk jateko, esaterako arrautzak, ostrak edo barraskiloak. Denborarekin, IV. mendetik aurrera, zeukan jatorrizko eginkizuna galdu zuen, eta **prestigio eta balio handiko objektu** izan zen. Horiek horrela, IV. eta VII. mendeen artean oso ohikoak dira altxor, ezkutatuko gai eta hilobietan, Europa guztian zehar.

Giro kristauetan, *cochlear*-ei erabilera liturgiko bat egotzi izan zaie, **jaunartze eta bataioaren sakramentueterako**.

### **Non aurkitu zen?**

*Cochlear* hori Dulantziko San Martin aztarnategitik dator. Hura urgentziaz induskatu zuten, ingurua urbanizatzeko obra batzuk egin behar zirelako. Han, hainbat garaitako hondakinak aurkitu ziren, eta nabarmentzen da VI. mendearen bigarren erdian artean erabiltzen zen kultuko eraikin handi bat. Hilobietako batean, barrualdean, bi hildako aurkitu ziren, zilarrezko koilara bana zeukatenak.

### **Norena zen?**

Koilara gizonezko heldu baten eskuan aurkitu zen, 40 urte ingurukoa eta 1,75 m inguruko garaierakoa. Koilaraz gain, urre trinkozko eraztun bat eta beirazko kaiku bat aurkitu ziren. Nola objektuek balio material handia zeukaten eta *cochlear*-ak eginkizun liturgikoa zeukan, pentsatzekoa da jabeak karguren bat zeukala elizan edo gizon garrantzitsua zela.

### **Zer dago grabatuta koilaran?**

*Cochlear*-aren esku babesean, *AGRECI* inskripzioa ageri da; honela itzuli genezake: "Agrecius-en jabetza".

Inskripzioarekin batera eszena bat ageri da, interpretatu dena Teseo eta Minotauroaren arteko borroka bezala.

Objektu liturgiko batean irudi pagano hori agertzea interpretatu da Teseoren mitoa kristautzearen lehenengo adibideetako baten gisa. Horiek horrela, Teseo labirintoan sartu zen bezala Minotauroari aurre egiteko, Kristo infernura jaitsi zen, hautatuak askatu zituen, eta garaile bueltatu zen.

Heroi greziarraren historiaren egokitzapen hori nahikoa sarritan ageri da elizetan eta Erdi Aroko eskuizkribuetan, labirintoaren irudiaren bidez. Hala ere, hain garai goiztiarreko adibide gutxi daude, hala nola Dulantziko San Martingo koilara liturgikoa.

Apainketa horrez gain, kirtena animalia baten buruarekin apainduta dago, non argi eta garbi ikus daitezkeen begiak, belarriak eta ahoa.

### **Nola zaharberitu zen?**

Zilarraren mineralizazioak hauskortasun handia ematen dio piezari; beraz, horren gainazala kontu handiz eta lupa binokular erabilia egin zen. Horri esker, zehatz-mehatz ikusi ahal zen grabaturik zegoen irudia.

Ondoren, zatiak itsatsi ziren, falta zen zona leheneratu zen, eta azkeneko babes geruza bat eman.

Beste edozein arkeologia objektuekin egiten den bezala, hezetasun eta temperatura baldintza egonkorretan kontserbatu behar da.